

## Itzulpen-kontratu bidezkoak egiteko gidalerroak

CEATLk 2011n onetsitako Hexalogoan oinarriturik, literatura-itzulpengintzaren sektorean praktika onak finkatzeko tresna izan nahi dute gidalerro hauek. Praktika horiek argitalpen-industriako partaide guztientzat dira onuragarri (itzultzaileak, argitaratzaileak, jatorrizkoen egileak), literatura-itzulpenen kalitatearen mesederako izango baitira. Horretarako, ezinbestekoa da itzultzaileentzako bidezko oinarriak, harreman orekatuak eta lan-baldintza egokiak bermatzea, izan materialak, izan moralak.

Oharra: ezinbestekoa da itzultzaileak eta argitaratzaileak kontratu bat sinatzea, lana itzultzen hasi aurretik. Kontratu horrek baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Idatziz jaso behar da.
- b) Erreferentziatzko kontratuetan oinarritu beharrekoa da, halakorik izatekotan,<sup>1</sup> edo itzultzaileen eta argitaletxeen elkarrekin adosturiko kontratu-ereduetan. Izan ere, oinarritzko eskubideak bermatzen ditu halako kontratu batek, eta bi aldeen arteko negoziazioan sor litezkeen desproporzioen eragina murrizten.
- c) Baldintzak onustez negoziatu ondoren finkatu behar da kontratua, aldeen behar espezifikotara egokitu ahal izateko, kasuz kasu.

### 1. Eskubideen lagapena, argitaratzailearen betebeharrak

Eskubideen lagapena ale-kopuru edo/eta denbora-tarte jakin baterako izango da. Itzultzaileak ez badu *royalty*rik jasotzen, lagapena epe laburrago baterako izango da.

- Lagatzen diren eskubideak eta lagapen horren baldintzak negoziagarriak dira. Kontratuak ez du izan behar lagatzen diren eskubide guztien bilduma bat; lagapenaren mugak zehaztu behar dira bertan (lagatzen den eskubide bakoitza aipatu behar da kontratuan). Ustiapen-eskubideei dagokienez, kontratuak ez du jaso behar oraindik existitzen ez diren teknologien bidezko ustiapen-lagapenik, eta ez du aurreikusi behar etorkizunean lege berri batek berma lezakeen eskubiderik.
- Berez, itzulpena ustiatzeko eskubideen lagapenak bat etorri behar du jatorrizkoaren egileak eta argitaratzaileak adostu duten lagapenarekin; haien adosturiko mugaren eta denbora-tartearen arabera behar du. Nolanahi ere, lagapenaren iraupenak ez du hamar urtetik gorakoa izan behar. Kontratuak itzulera-klausula bat jasoko du; esate baterako: «Uneren batean egileak jatorrizko obraren eskubideak berreskuratzen baditu, automatikoki berreskuratuko ditu itzultzaileak itzulpenaren eskubideak».
- Argitaratzaileak epe jakin bat izango du itzulpena argitaratzeko. Adibidez: «Argitaratzaileak, bestalde, kontratuan ezarritako epearen barruan argitaratuko du itzulpena, betiere itzulpen osoa aurkezten denetik bi urte igaro baino lehen» (Hexalogo, #4).

---

<sup>1</sup> Jurisdikzio zibilararen arabera, kontratu «tipiko» edo «izenduna» estatutu batean arautzen da formaz eta edukiz, eta izendapen berezia du; «edizio-kontratu», esate baterako.

## 2. Eskubide moralak

Bernako Hitzarmenak eskubide moral besterenezinak aitortzen dizkie egileei, eta bi nabarmentzen dira horien artetik:

- Obraren egiletza aitor dakiola galdatzea

Norberaren obraren egiletza aitortua izateko eskubidea: «Itzulpenaren egilea den aldetik, itzultzailearen izena aipatu egin beharko da jatorrizkoaren egilea aipatzen den guztietan» (Hexalogoia, #6). Argitaratzaile batek itzulpenaren ustiapen-eskubideak beste norbaiti utziz gero, horrek ere aipatu beharko du itzultzailearen izena, kontratu bidez hala adierazita.

- Obraren osotasuna gorde dadila galdatzea

Kontratuak itzultzailearen obraren osotasuna errespetatu behar du, eta, beraz, ez da aldaketarik egingo itzultzaileari haien berri eman gabe edo haren onespenez gabe. Itzultzaileak eskubidea izango du ez uzteko ezekin desitxuratze, aldaketa, bestelakotze edo eraso egiten obrari, haren kaltetan edo itzultzailearen izen ona gutxiarazteko moduan. Klausula baten bidez bermatu beharko da obraren osotasunari dagokion eskubidea. Honela, esate baterako: «Argitaratzaileak ez du itzulpenean aldaketarik egingo itzultzailearen baimenik gabe». Kontratuan, beraz, zuzenketa eta proba-zuzenketa prozesu bat aurreikusiko da, itzultzaileak testuari egiten zaizkion aldaketen berri izan eta horiek onar ditzan.

Itzultzaileak azken testua jasoko du argitaratzailearengandik, argitaratu aurretik onspena eman diezaion, eta fede onez ebaluatuko ditu aldaketak. Horrek edizioaren prozesuan elkarlanean jardutea sustatuko du.

Itzulgaiak aditu baten berrikusketa behar badu, eta horrek aldaketa edo/eta eranste nabarmenak eragiten baditu, kontratuak itzultzailearen eta berrikusle teknikoaren arteko lankidetzara aurreikusi behar du, bien zereginak eta eskubideak errespetatze aldera.

## 3. Ordainsaria

Ordainsaria negoziatu egin beharko da (enkarguarena eta salmenten arabera portzentajea), eta faktore esanguratsu guztiak hartuko dira kontuan, hala nola itzulpenaren luzera eta zailtasuna, itzultzailearen esperientzia, itzulpen-proiektua itzultzaileak abiarazi izana, liburuaren salmenta-aurreikuspenak (bestsellerretan) eta abar.

- Enkarguaren ordainsaria

«Tarifak: agindutako itzulpen-lan bakoitzagatik ordaindu beharreko tarifa bidezkoa izan beharko da, eta bizimodu duina izateko eta literatur kalitate oneko itzulpenak egiteko aukera eman beharko dio itzultzaileari». (Hexalogoia, #2)

Kontratuan aurreikusiko balitz ere argitaratzaileak dirulaguntzaren bat jasoz gero itzulpenaren ordainsaria igotzea, dirulaguntza hori jaso gabe ere bidezkoa izan behar du oinarritzko ordainsariak.

- *Royalty*ak eta bigarren erabilerak

«Itzultzaileak bidezko parte izango du bere lanaren ustiapenak ematen dituen irabazietan, edozein dela ere horretarako modua, lehenbiziko kopiatik beretik hasita». (Hexalogo, #5)

Itzulpenaren egilea izanik, bidezkoa da itzultzaileak liburuaren arrakastak sorturiko etekinen partaidetza proportzional bat jasotzea. *Royalty*ak lehen kopiatik hasita jaso beharko ditu, edo –aurrerakina bada– hasierako ordainsaria berdindu ondoren (edo aurrez zehazturiko ale kopuru jakin bat saldu ondoren). Nolanahi ere, hainbesteko batean egindako enkargua bada, ordainketa-gehigarri bat izan beharko du itzultzaileak, aurrez adosturiko ale-kopuruaren salmenta gainditzen denean.

Halaber, itzultzaileak bigarren ustiapenen irabazien parte bat izan beharko du; adibidez, honelako ustiapenetan: liburu elektronikoak, audioliburuak, liburu-klubak, etab.

- Ordainketari buruzko baldintzak

«Kontratua sinatzean, itzultzaileak aurrerakin bat jasoko du, gutxienik ordainsari osoaren heren bat. Gainerakoa, beranduenez ere, itzulpen osoa aurkeztean ordainduko da». (Hexalogo, #3)

Enkargua argitalpenaren egunean ordaintzea aurreikusten duten kontratuak ez dira onargarriak. Azken ordainketak lotura zuzena izan behar du itzulpena amaitu eta onartzearekin.

Azken ordainketa itzulpena onartzearen mende badago (ikus 5. puntua beherago), gehienez itzulpena entregatu eta hilabetera onartu beharko da.

- Itzultzaileari ez zaio lan erantsirik eskatuko doan

Itzulpena ez ezik itzultzaileak bestelako lanik ere egin behar izatea aurreikusten bada (adibidez, ikerketa-lan aparteko bat, hitzaurre bat, glosario bat edo aurkibide bat), orduan, lan horiek zehaztu beharko dira, bai eta horien ordainsariak ere. Hasierako enkarguan aurreikusi gabeko lanik egin behar izatekotan, aparteko ordainsaria jaso beharko du itzultzaileak.

- Ez da obraren ustiapenik egingo ordainsaririk gabe

Klausula batzuek diote zenbait ustiapen-forma –itzulpen osoarena edo zati batena– ez zaizkiola itzultzaileari ordainduko, baldin eta ustiapen horien helburua itzulpenaren eta itzultzailearen promozioa ez ezik «argialetxearen jarduerarena» ere bada. Definizio lauso hori ez da onargarria.

#### 4. Likidazioak

Argitaratzaileak itzulpenaren erabilerari buruzko informazio zehatza eta gardena emango dio itzultzaileari, urtean behin gutxienez, ikuskaritzari buruzko klausulan jasotzen

denaren arabera. Itzultzaileari *royalty*rik ez badagokio ere, informazio hori jaso beharko du (likidazioari buruzkoa izan ezik), eskubidea baitu jakiteko itzulpena nola ustiatu den eta zer diru-sarrera eragin dituen.

## 5. Itzulpena onartzea

Itzulpena, normalean, enkargu bat izaten da, eta argitaratzailearen zereginetako bat da itzultzailearen gaitasuna ziurtatzea enkargua egin baino lehen (beste itzulpen batzuk irakurriz edo lagin bat eskatuz, esate baterako). Hala, argitaratzaileak ez du itzulpena atzera botatzerik izango, baldin eta itzultzaileak bere egitekoa bete badu eta kontratuan adosturiko baldintzetan entregatu badu lana (betiere argitaratzaileak irakurri duen laginaren antzeko estiloa eta kalitatea badu lanak). Kontratuan aurreikusi behar da argitaratzaileak ez duela itzulpena arbitrarioki baztertzerik izango konturatu delako ez duela itzulgaia ondo hautatu edo egoera aldatu delako.

Argitaratzaileak eta itzultzaileak itzulpen profesional bat egiteko epea adostuko dute. Bien ardura da itzulpen profesional eta kalitatezko bat egiteko epe egokia zehaztea. Literatura-itzulpenari dagokionez, bereziki, itzultzaileari ezingo zaio eskatu itzulpena zatika bidaltzeko, prozesu editoriala arintze aldera; izan ere, behin itzulpen osoa egin ondoren, itzultzaileak behin betiko forma eman diezaioke bere lanari, testua koherentea eta bateratua izan dadin. Beraz, itzultzaileari eskatzen bazaio zatika bidaltzeko itzulpena edo epea laburtzeko, argitaratzaileak ez du eskubiderik izango itzulpen hori atzera botatzeko, itzultzaileari ez baitzaio nahikoa denbora eman.

Kontratuan jasotzen bada itzulpena «kalitate-arrazoiengatik» ez onartzeko aukera (ondo argudiatuak izan beharko dute arrazoiak), zuzenketak egiteko edo konponbide batera iristeko bideak zehazteko klausulak jaso beharko ditu kontratuak, eta itzultzaileak ez du kontratua sinatzean jasotako aurrerakina itzuli beharrik izango. Gainera, kontratuak itzulpena onartzeko epe bat jaso behar du (adibidez, 30 eguneko), eta, epe horretan idatziz jaso ezean zein diren argitaratzailearen arrazoiak itzulpena baztertzeko, onartutzat joko da.

## 6. Argitaratzailearentzako bermeak

Itzultzaileari ezin eskatuko zaio obrak eduki iraingarririk izatea, legeren bat nahiz pribatutasunaren edo publikotasunaren eskubidea urratuko lukeenik. Edukiari dagokionez, itzultzailearen ardura bakarra itzulpena berak egin duela bermatzea da; jatorrizkoa dela, eta ez duela beste inoren jabetza intelektualaren eskubidea urratzen. Dena den, argitaratzaileari ziurta diezaioke itzulpenean ez duela sartuko jatorrizko testuan ez dagoen eduki iraingarririk, eta, trukean, hori dela kausa salaketarik izanez gero, argitaratzailearen ardura izango da halakoei erantzutea.

Garrantzitsua da gidalerro hauei erreparatzea, baina gerta liteke nahikoa ez izatea: itzultzaileak erne egon behar du beti, ziurtatzeko sinatzera doan kontratua zuzena eta bidezkoa dela bi aldeentzat.

### **Enkarguzko kontratuei buruzko oharra**

Estatu Batuetan kokatuak diren argitaletxeek edo atzerriko kontratu-ereduak «inportatu» nahi dituzten argitaletxe europarrek tentazioa izan dezakete itzultzaileari «enkarguzko kontratuak» eskaintzeko, berentzat mesedegarriago iruditzen baitzaizkie.

Estatu Batuetako Copyrightaren Legearen arabera, lan bat halako kontratu baten bidez egin bada, enkargua egin duen pertsona fisiko edo juridikoa bihurtzen da lan horren egile eta ustiapen-eskubideen jabe, ezen ez lanaren egilea bera. Enkarguzko kontratuak Bernako Hitzarmenak jasotzen dituen printzipioak urratzen ditu, baita Europako herrialde gehienetako jabetza intelektualaren legeak ere (denenak ez esateagatik). Horrenbestez, halako kontratu «inportatuak» ez dira inola ere onartu behar, ez dituztenez herrialde bakoitzeko konbentzio eta legeak errespetatzen (informazio gehiago CEATLren webgunean).

### **Erreferentziak**

- CEATLren Hexalogoia edo jokamolde onaren kodea [Ingelesez](#), [frantsesez](#), [euskaraz](#).
- Bernako Hitzarmena [Reseña del Convenio de Berna para la Protección de las Obras Literarias y Artísticas](#) (1886) – besteak beste, ingelesez eta frantsesez ere badago.
- [Jabetza Intelektualaren Legea](#) (Espainia)  
Testu elebiduna gaztelaniaz eta euskaraz.

Gidalerroetan aipatzen diren gaien inguruan:

II. titulua, III. kapitulua, I. atala, *Eskubide morala*

- 14. artikulua. Eskubide moralaren edukia eta ezaugarriak

V. titulua, I. kapitulua, *Xedapen orokorrak*

- 46. artikulua. Ordainsari proportzionala eta hainbesteko batekoa

V. titulua, II. kapitulua, *Argitalpen kontratua*

- 60. artikulua. Formalizazioa eta gutxieneko edukia
- 69. artikulua. Kontratua azkentzeko kausak